


EUSKARALDIA

 **Zer da?** Euskara gehiago erabiltzeko ariketa soziala

 **Noiz da?** Azaroak 20tik abenduaren 4ra

 **Nork parte hartu dezake?** Euskaraz hitz egiten zaienean ulertzeko gai diren 16 urtetik gorako pertsonak

Aukeratu zure rola:



Ahobizi: "Euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote

duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.

Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean".



Belarriprest: "Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin

egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiakin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan".

Gogoratu! Gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean



Nola izena eman?
Irailaren 24tik aurrera
<https://izenematea.euskaraldia.eus/>
Kultur Etxea:

- ▶ **Urriak 14,** 17:30-18:00/ 19:00-19:30
- ▶ **Urriak 16,** 19:30-20:00/ 21:15-21:45

Txapak eta musukoak nola jaso?
Urriaren 26tik aurrera

- ▶ Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuan (9:00-14:00)
- ▶ Kultur Etxean (14:00-21:00)

Euskaraldiari buruzko bertso saio tematikoa

2 bertsolarik gai jartzaile batek lagunduta 60 minutuz beren hizkuntzaren bizipenak bertsoan kontatuko dizkigute.

Eguna: azaroak 13, ostirala

Ordua: 20:00

Lekua: Kultur Etxeko Auditorioa

Ordu erdi bat aurretik eta ondoren izen emateko orriak egonen dira. Txapak eta musukoak ere jaso ahalko dira.

Zer da Arigune bat?

Aurtengo Euskaraldian euskaraz lasai aritzeko guneak ere identifikatuta egongo dira. Gune horietan

euskaraz hitz egiteko aukera

bermatzen da uneoro, izan taldeko

kideen artean zein entitateak

harritarrekin duen harremanean.

Adi ikurrari!